

31. IZEN MORFOLOGIA

Morfologia flexiboaren gainean jaso ditugun materialak aurkezteko, sail nagusi bi egin ditugu; lehenengoan, izen morfologiaren gaineko materiala ikusiko dugu eta bigarrenean aditz morfologia. Izen morfologiaz jaso ditugun materialak ondoko ataletan banatuta aurkeztuko ditugu: artikulua, graduatzaileak, erakusleak, izenordainak, aditzondoak eta deklinabidea.

31.1. ARTIKULUA

Artikulua oinarriari eranstea, erroaren bokal guztien arabera singularrean eta pluralean gertatzen diren aldaketak ondoko taulan ikusten dira (CDan soinuaren atalean aldaketa hauek eragiten dituzten arauak ikus daitezke):

	singularra	plurala
-a	alabie	alabak
-e	semie	semiek
-i	ididxe/idixe	ididxek/idixek
-o	astue	astuek
-u	katue	katuek
-k	lagune	lagunek

«i»ren ostean adineko informatzaile gehienek «dx» txertatzen dute; zahar batzuek eta gazteek, ostera, aldaki ahoskabea erabiltzen dute. «u» eta «i»ren ostean «e» gal daiteke berbeta arinean batez ere kontsonante baten aurrean: *astuk*, *katuk*, *semik*, *olakotxik*, e.a. Hona hemen plural hurbilaren erabileraren gaineko adibide batzuk:

«*A bañe, ontxe, desfrutetan daben moruen desfrutetan gendun orrekin gausokin*» (*A baina, oraintxe, disfrutatzen duten moduan disfrutatzen genuen gauza horiekin*)

«*Neskak gonakiñ juete sien ta orrek gausok esiñ ein len*» (*Neskak gonekin joaten ziren eta gauza horiek ezin egin leben*)

«*Parrokuai, alkatiai, da orretan etxiotan diferente kanteta san*» (*Parrokoari, alkateari, eta horietan etxeotan desberdin kantatzen zen*)

«*Gurien kortara jute sien, e, iru bixitza sien, iru bixitzok paseta giñen etarte batetik*» (*Gurean kortara joaten ziren, biru bizitza ziren, biri bizitzok pasatzen ginen etarte batetik*)

- «Askenengo urtietan selan esan galbaretan, se orrekiñ, e, ser andidok»
(Azkenengo urteetan zelan ez zen galababatzen, ze boriekin, zer handiok)*
- «Onek oitturok nos amaittu biar ete dabe, onek oitturok» - (Hauek obiturok noiz amaitu behar ete dute, hauek obiturok)*